01 15
URIBARRI-GANBOA URMAELA


Zadorra ibaia Opakua ibaian jaio egiten da, San Millán udal mugartean (Araba), eta ipar mendebaldera zuzentzen da, gaur egun, Uribarri-Ganboako urmaelean presatzeko.

1934. urtean, Manuel Uribe-Etxeberriari 9.000 litro segundo bakoitzeko emakida bat eman zitzaion hornikuntza eta energia elektrikorako. 1945. urtean emakida hura Bizkaiko Labe Garaietara transferitu zen eta bi urte ondoren, Aguas y Saltos del Zadorra izeneko filiala sortu zuen. 1947. urtean, presaren obrei ekin zieten, eta 1956an horiek amaitu zituzten.

Antonio del Águila ingeniariak kontrahormak motatako presa hau diseinatu zuen. Zimenduetatik 34 m altuera dauka eta gailurrean, berriz, 543 metroko luzera du. 148 milioi m3 barne har ditzake, nahiz eta bere batezbesteko sakonera 8 metrokoa bakarrik izan.


Urrunaga urmaelarekin lotuta dago (Santa Engracia ibaian, Zadorrako adarra) 3,5 kilometroko eroanbide baten bidez, 72 milioi m2-ko edukierarekin eta, horrek, hein berean, 12,5 kilometroko beste eroanbide baten bidez Udurraga (1973) urmaelarekin lotzen da, azken hura Kantauriko arrokoa.

Urmael honen bidez, edo bere baypass-en bidez, Zadorrako sistemak ura ekartzen du Bilboko eskualdeari hornitzeko eta 329 metroko kota aldea aprobetxatzen du, energia elektrikoa ekoizteko, Barazar zentral elektrikoan (Iberduero/Iberdrolak kudeatuta 1957. urtetik), batera 85 Mw instalatutako potentzia duten bi sorgailu ekipoekin, nahiz eta proiektua, hasiera batean, lau sorgailu instalatzean zetzan. Azken horiek gaur egun instalatutako potentzia bikoiztuko zuten.



Ortoargazkia 1945-46. Amerikar hegaldia, A bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco;geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Argazki honek Zadorra ibaiaren jatorrizko bidea eta ondoko laborantzak irudikatzen ditu. Bertan, zenbait urte ondoren, presa eraiki egin zen (lerro gorria). Horrez gain, ezin da ikusi oraindik etorkizuneko urmaelaren sektore honek zeharkatuko duen perimetroko errepidea.



Ortoargazkia 1956-57. Amerikar hegaldia, B bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

UTM 30N ETRS89 // X: 531298 m // Y: 4753036 m// Z: 544 m (presaren erdia).

Urmaela argi ikusten da baina oraindik bete gabe, eta baita urez beteriko komunikabide sarearen ordez eraikitako errepidea ere.

Egia esan, 150 Hm3 lekuz aldatzen dira, urtean, Mediterraneoko arrotik Kantaurikora. Horrez gain, ura eramaten du ere Vitoria-Gasteizeko eskualdeari hornitzeko.


Urmaelak ureztatutako azaleraren eraginez (1.490 Ha), Zadorra ibaiaren bidea ezabatu zen. Bertan, bereziki, laborantza-soroak zeuden, beraz, ibaiaren bidea desagertzearekin batera, hainbat herri gune guztiz edo partzialki desagertu ziren eta bertako biztanleek emigratu behar izan zuten, herri berriak inguruetan eraikitzeko ideia baztertu egin baitzen. Herri horiek, besteak beste, honakoak izan ziren: Ullibarri-Gamboa (bere baserriaren zati handia kontserbatu zuen), Landa, Mendizabal, Nanclares de Gamboa, Zuazo de Ganboa, Azua, Garaio eta Orenin.

Urmaelaren ingurua Arratzua-Ubarrundia, Elburgo eta Barrundia udalerrikoena da.


Gaur egun, urmaelak fauna interesgarria dauka eta oso gertu dagoen Arabako hiriburuko biztanleek aisialdirako eta olgetarako gune gisa erabiltzen dute.




Uribarri Ganboako gaur egungo hirigunea. CC BY-3.0-ES 2012 /EJ-GV / Irekia-Gobierno Vasco / Mikel Arrazola.



Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. Uribarri-Ganboako urmaelak Zadorrako sektore handia okupatu zuen, meandro ugari barne hartuta. Urdinez ibaiaren trazadura markatu da urmaela egin aurretik, 1945-46. urteko ortoargazkian adierazitako trazaduraren arabera. Gorriz urmaeletik kanpoko gaur egungo trazadura adierazi da.



Ortoargazkia 1956-57. Amerikar hegaldia, B bilduma. Urmaeleko erdigunea ikus daiteke (sektore urdina). Bertan, urak hartutako partzela kopuru anitza atzematen da (nagusiki laborekoak). Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.



Urmaelak eragindako herriek biztanle kopuru gutxi zuten, baina etxeak eta lurrak nahita nahiez utzi behar izatea oso gogora izan zen bertakoentzat. Eragindako zortzi herrietatik, hiru erabat edo ia erabat urperatuta geratu ziren: Landa, Mendizabal eta Zuazo Ganboa. Beste batzuk, berriz, esaterako; Uribarri-Ganboa, Nanclares de Ganboa, Azua, Garaio eta Orenineko etxeak partzialki urperatu ziren. Hasierako biztanleriaren, eragindako etxe kopuruaren eta urperatutako lurraldeen hedaduraren arabera (biztanleei bertan bizitza ezinezko bilakatuz), herri batzuek aurrera jarraitu zuten eta beste batzuk biztanle gabe geratu ziren, nahiz eta guztiz urperatuta ez egon. Urdinez adierazitako gunea urak hartutako azalerari dagokio.

Oinarrizko irudia: Ortoargazkia 19561957, Amerikar hegaldia, B segida. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Ortoargazkia 1956-57. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.

Adierazitako sektorea Landako hirigune txikiari dagokio. Gorriz koloreko lerro batzuekin etxeetako ingurua adierazi da.






Etxeetako bat (goiko a.) eta Landako eliza. Iturria: Arabako Foru Aldundia.



Azuako elizaren hondakinak. Gaur egun Elburgoko udalerriaren barne dago.



Nanclares de Ganboa ez zen guztiz desagertu urmaela bete ondoren, nahiz eta biztanleriak behera egin nabarmen eta kontzeju izaera galtzera iritsi.





Goiko irudia : Ortoargazkia 1956-1957, Amerikar hegaldia, B bilduma. Iturria: Eusko Jaurlaritza; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala. Gorriz adierazi dira Landako eraikinak, horietako batzuk Zuazo irlan geratu zirenBehe irudia: Ortoargazkia 2002. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. 2002ko ortoargazkiak urmaelaren maila txikiena adierazten du eta normalean urperatuta izaten den zenbait eraikin ikusteko aukera ematen du.